



## Cristina Enea Fundazioak 10 urte beteko ditu aurten, hirian eta Gipuzkoan ingurumen-kontzientzia-erreferente bilakatuta

Azken 10 urteotan ia 370.000 lagunek hartu dute parte Cristina Enea Fundazioak antolatutako jarduera eta ekimenetan. Hamargarren urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi ospatuko direla azaldu du fundazioko zuzendari Txema Hernandezek. Donostiako Alkate eta fundazioko presidente Eneko Goiak nabarmendu du Cristina Enea "hiriak duen altxor bat dela" eta ingurumenaren zaintza eta sentsibilizazioari egiten dion "ekarpen itzela" azpimarratu du.



2009ko abenduaren 14an ekin zion ofizialki bere bideari Cristina Enea Fundazioak, hilabete batzuk lehenago ere zenbait ekimen eta

jarduera abian jarri baziren ere Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxetik. Data hori gogoan, abenduaren 14a alegia, 2019 urte osoan zehar hainbat eta hainbat jarduera berezi antolatuko ditu Cristina Enea Fundazioak bere ohiko programaziotik haratago, urtemuga borobil hori dagokion bezala ospatzeko, ospakizunei amaiera abenduaren 14an emango zaielarik.

Aurretik ditugun hilabete hauetan denetan, herritarrekin ospatu nahi du fundazioak urtemuga berezi hau, eta horretarako publiko mota guztiei programazio berezia eskaini nahi die. "Guretzat oso urte berezia izango da aurtengoa; orain arte eginiko ibilbidean mugarrizko izatea espero dugu eta urtemuga orain arte gure ondoan egon direnekin ospatu nahiko genuke, alegia, herritarrekin, erakundeekin eta eragile ezberdinekin", adierazi du Txema Hernandezek, eta gaineratu du "publiko mota guztiek aurkituko dute gustoko jarduerak eta ekintzak, urte guztira zabalduko den ospakizun-programazio berezian".

Hamargarren urteurreneko egitarauaren aurkezpenean Eneko Goia ere izan da, Donostiako Alkatea, eta ondorioz, Cristina Enea Fundazioko presidentea. Goiak adierazi du "milaka eta milaka direla Cristina Enea Fundazioarekin hartueman izan duten herritarrek". Ildo horretan, "hiriaren natur



*ondarea ezagutarazteko, balioan jartzeko, hobetzeko eta zabaltzeko Fundazioak egiten duen lana*” goraiatu du alkateak.

### **Historia pixka bat eta zenbait datu**

Cristina Enea Fundazioak 2009an ekin zion bere bideari, Egian kokatuta dagoen Cristina Eneako parkean. Urte batzuk lehenago, 2005ean, ireki zen Ingurumen Baliabideen Etxean du harrez gero bere egoitza, baina ez da fundazioak kudeatzen duen udal-ekipamendu bakarra. 2010ean, San Telmo Museoarekin eginiko hitzarmen bati esker, Urgull mendian kokatuta dagoen Natur Txokoa kudeatzen hasi zen, gaur egun arte. Urgullen, Gobernadorearen Bateria dagoen Natur Txokoa naturaren gela berezia da. Bere helburua da ingurumen-aberastasun handia duen kokagune historiko honetatik naturarekiko errespetua sustatzea, aisialdiko jarduera didaktikoen bidez. Garai batean Napoleonen Goardiarenak izan ziren azpiegitura hauetan, haurrentzako tailer eta jarduera sortzaileak antolatzen dira egunero, bai udaberriko oporraldian, bai eta udakoan ere.

2012an berriz, Uli mendiko Interpretazio Zentroa kudeatzen hasi zen Cristina Enea Fundazioa, Donostiako Udalarekin eginiko hitzarmen bati esker. Uli Interpretazio Zentroak, Uli bezalako leku berezi eta enblematikoa ezagutzera emateko balio du, bere ingurune fisiko, natural eta historikoan sakonduz. Interpretazio zentroak jarduera didaktiko eta kultural bezalako egitaraua du, tailer didaktikoekin, Uliatik zehar antolatutako ibilbideekin, zentrotik bertatik eginiko bisita gidatuekin, proiektuekin, behin-behineko erakusketekin...

Hiru udal-ekipamendu hauetatik, azken 10 urteotan 226.000 lagun baino gehiago pasa dira, publiko guztiei eskainitako jarduera irekietan parte hartuz.

Kopuru horri bai Ingurumen Baliabideen Etxean, bai Uli bertan ikastetxei eskaintzen zaizkien Hezkuntza Eskaintzetan parte hartu duten ikasleak (110.000 ikasle Cristina Enean eta 12.000 Uli), eta proiektu ezberdinetatik ikastetxeetan bertan burutu ditugun jardueretan parte hartu duten ikasleen kopurua (20.000) gehitu behar zaizkio. Ondorioz, orotara **Cristina Enea Fundazioak azken 10 urteetan antolatutako jardueretara gerturatu den pertsona kopurua ia 370.000 da.**

Txema Hernandezek nabarmendu du kopuru horrek argi uzten duela *“ingurumen kontzientziazioaren esparruan Cristina Enea Fundazioa erreferente”* izatera iritsi dela, *“bai hirian baita Gipuzkoan ere”*. Eta horretarako hainbat datu argigarri eman ditu ezagutzera. **“Batez beste urtero 12.400 pertsona pasatzen dira Cristina Enea Fundazioak kudeatzen dituen 3 udal ekipamenduetan ikusgai egoten diren erakusketetatik (azken 10 urteetan, 124 erakusketa), 7.300 lagun gerturatu dira antolatu ditugun 170 hitzaldietara eta urtero 12.200 lagunek hartzen dute parte, programatzen ditugun ikastaro eta tailerretan (urtero, batez beste 41 ikastaro eta tailer)”**.

Datu hauen aurrean Eneko Goiak nabarmendu nahi izan du errealitate egonkortu bat isladatzen duela Cristina Enea Fundazioak, *“Donostian ez ezik, Gipuzkoan eta Euskal Herri mailan erreferente garbi bihurtu baita ingurumenaren errespetuaren espazioan”*.

Aipatutako hiru udal-ekipamenduez gain (Cristina Enea, Uli eta Urgull), fundazioak bi behatoki ere kudeatzen ditu: Iraunkortasunaren Behatokia eta Bizikletaren Behatokia. Lehena, Iraunkortasunaren Behatokia, analisi, hausnarketa, behaketa, prospekzio eta planifikazio estrategikorako tresna da. eta bi funtzio berezi betetzen ditu: udalerraren eta bere inguruaren egoeraren analisi zehatz eta zorrotza egitea, eta lurraldean lanean ari diren eragile ezberdinei erabaki-hartzea erraztuko dieten garrantzizko informazioa eta proposamen estrategikoak argitaratzea. Honela, Cristina Enea Fundazioak Iraunkortasunaren Behatokiaren kudeaketa 2009tik baldin badauka ere, 2011an



zehaztu zuen bere ildo estrategikoa, urtero argitaratzen duen Iraunkortasunaren Txosteneko adierazleei ordura arte ez zeukaten irizpide-homogeneizazioa eskainiz.

Bigarren Behatokia berriz, Bizikletaren Behatokia, Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuaren, Cristina Enea Fundazioaren eta Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartearen elkarlanaren ondorioz sorturiko tresna da, eta bizikletaren erabilpena hirian erraztu eta hobetzeko helburua dauka. Aldi berean, bizikleta gaineko hiri-mugikortasunaren zainketa eta analisia egiten du, eta gizarteak egiten dituen galdera, kexa eta iradokizunei erantzuna ematen dizkie. Bizikletaren Behatokiaren testuinguruan, 2015ean Zikloteka sortu zuen fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, alegia bizikleta bidezko mugikortasunari eskainitako dokumentazio zentro aitzindaria.

### Laburpen kronologikoa

**2005: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea** ireki zen

**2009: Cristina Enea Fundazioa** sortu zen, eta bere baitan zuen **Iraunkortasunaren Behatokia**

**2010: Urgulleko Natur Txokoaren** kudeaketa Cristina Enea Fundazioaren esku gelditu zen

**2011:** Iraunkortasunaren Behatokiaren ildo estrategikoa zehaztu zen, **Urteroko Iraunkortasun Txosteneko** adierazleei irizpide homogeneizazioa emanez

**2012: Ulia Interpretazio Zentroa** ireki zen, Cristina Enea Fundazioak kudeatua

**2012: Bizikletaren Behatokiaren** sorrera, Cristina Enea Fundazioak kudeatua

**2015: Ziklotekaren** sorrera, Cristina Enea Fundazioak kudeatua

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, bai Goia bai eta Hernandez ere, gustura azaldu dira Cristina Enea Fundazioak orain arte eginiko bidearekin, baina ez dute ahaztu nahi izan datozen urteetan ere erronka eta egitasmo berriak izango dituela. *“Aurtengo urtea mugarrria izango da fundazioarentzat, orain arte eginiko lanaren eta ibilbidearen inguruan hausnartzeko garaia; baina gure begirada jada datozen hile eta urteetan finkatua dugu, ez dugu orain arte sorturiko inertzia galdu nahi. Ingurumenarekin jasangarriagoak eta adeitsuagoak diren eredueta jausi egiteko aukerak eta alternatibak eskaini nahi dizkiogu gizarteari aurrerantzean ere”,* adierazi du Hernandezek.

### Hamargarren urteurrena, data mugarrria Cristina Enea Fundazioarentzat

Cristina Enea Fundazioa sortu zenetik hamar urte igarota, Eneko Goiaren eta Txema Hernandezen ustetan une egokia da begirada atzera bota, eginikoa aztertu eta etorkizuneko norabidea zehazteko. Txema Hernandezek esan du *“hamargarren urteurrena aitzakia bat izango da orain arte gurekin egon direnei eskerrak emateko. Horregatik, gure eguneroko lana eta betebeharrak alde batera utzi gabe, lau kolektibo zehatzekin ospatu nahi dugu urtemuga hau: ikastetxeekin, orain arte izan ditugun kolaboratzaileekin, instituzio eta erakundeetako ordezkarekin, eta publiko orokorrekarekin”.*

- **Ikastetxeetako publikoa** izan da, hain zuzen ere, 10 urte hauetan fundazioaren lehentasunetako bat. Horregatik zehazten dira urtero ikasleei eskainitako Hezkuntza Eskaintza desberdinak, gizartean ingurumenarekiko adeitsuago eta jasangarriagoa den eredu baterantz eraldaketa lortu nahi badugu gazteenak direlako landu beharreko esparru garrantzitsuenetakoa, beraiek direlako etorkizunean erabakiak hartuko dituztenak, eta beraien esku utziko dugulako gure planeta. Horregatik, udaberriko oporralditik itzultzean, Hezkuntza Eskaintzako jarduerak egitera Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxera datozen taldeei opari berezia egingo zaie: parkea izanik fundazioaren eremu eta ezaugarri ikusgarrienetakoa, parkearen beraren zati bat ikasgeletara eramateko aukera eskainiko diegu. Horretarako parkeko ikurretako bat den *Gingko biloba* zuhaitzaren zuhaixka bana oparituko zaio parte hartzen duten ikastetxe bakoitzari, gingkoak parkearen historian





izan duen garrantzia eta papera azaltzeko ipuin bat antzetzuz, eta zuhixka gelakide guztien artean ondo zaintzeko jarraibideekin.

- Azken 10 urteetan fundazioarekin modu batean edo bestean kolaboratu duten **elkarte eta eragileekin** festa bat izango da ekainaren 21ean Cristina Eneako parkean. Helburua da denon artean ondo pasatzea, musikaren laguntzarekin, denon arteko loturak, harremanak eta bizitako esperientziak gogoratzen ditugun bitartean. Musika talde batek zuzenean eskainitako emanaldiak lagunduta, giro atseginean ospatuko dugu kolaboratzaileekin urtemuga.
- Fundazioaren ibilbidean zehar udalean izan diren ordezkariekin eta patronatoan izan diren kideekin **festa instituzionala** egingo da abenduaren 14an, Cristina Enea Fundazioaren sorrera zehazten duen egun berean alegia. Ekintza protokolaria eta instituzionala izango da, baina ez da ezusterako tarterik faltako.
- Azkenik, herritar guztiei ere, **publiko orokorrari**, opari bat egingo dio Cristina Enea Fundazioak, eta irailean bisita teatralizatuak izango dira parkean zehar, bere historiaren xehetasunak azaltzeko, espreski okasio honetarako landuko den gidoi bereziarekin. Emanaldiak irekiak eta doakoak izango dira, aurrerago zehaztuko diren data eta orduetan.

#### ‘10 urte, 10 opari’

Amaitzeko, eta urtemugak urtebetetzeak bezalakoak direnez, ‘10 urte, 10 opari’ kanpaina ere abian jarriko du Cristina Enea Fundazioak. Helburua da martxotik hasi eta abendura arte doazen 10 hileetako bakoitzean, fundazioak opari bat jasotzea Donostiako aurpegi eta eragile ezagunen aldetik. Opari hori, ordea, ez da fundazioarentzat izango, baizik eta jasotzen duen momentu berean, Cristina Enea Fundazioak herritarrei eskainiko die, oparia herritar guztiek disfruta dezaten.

Horrela, datozen hamar hileetan literaturekin, pentsamendurekin, gastronomiarekin, musikarekin eta beste makina bat esparrurekin lotura duten lagunek Cristina Enea Fundazioari egingo dizkioten opariak bere egingo ditu gizarte osoak. Horri buruzko informazio puntuala Cristina Enea Fundazioaren webgunean eta sare sozialetan emango dugu ezagutzera, hile bakoitzeko hamargarren egunean.

Hasteko eta behin, fundazioak jaso duen lehenengo oparia ezagutuko dugu gaur. Izan ere Maria Cristina Hoteleko tabernako arduradunak, Fito Raba koktel egileak, Cristina Enea izeneko koktela oparitu digu. Herritarren esku jarriko dugu fundazioaren eta parkearen beraren izaera biltzen dituen edaria egiteko osagaiak eta pausuak, edonork bere etxean egin dezan. Koktelaren osagai nagusia fruta-zukuak dira, fundazioaren eta parkearen izaera ‘natuala’ jaso nahi izan duelako egileak. Hona hemen osagaiak:

- Lima: 2 cl. (edo limoi-zukua edo lima-zukua azukrearekin nahastuta)
- Marakuia zukua: 6 cl.
- Anana zukua: 4 cl.
- Jengibre tantatxo batzuk (jengibre freskoa ere izan daiteke, txikituta)
- Ginebra edo vodka, edari alkoholoduna izatea nahi izanez gero: 4 cl.

Emaitza edari fresko eta zapoetsua da, fruta kutsu nabarmenarekin, hamargarren urteurrena aurkezteko prentsaurrekora gerturatu direnek dastatu ahal izan duten bezala.

#### Logotipo berriatua

Hamargarren urtemuga aitzakia izango da, baita ere, bere hastapenetatik fundazioak izan duen logotipoari itxura aldatzeko. Horrela, eta orain arteko izaerari uko egin gabe, Cristina Enea parkeko ikur bilakatu diren paumek presentzia nabarmena izaten jarraituko dute fundazioaren logotipo berrian. Erabat irudi berria egin ordez, logotipoaren berregokitzapena egin da, forma eta lerro soil eta sinpleagoak erabiliz, garai berrietara eta egungo diseinu irizpideetara egokitzeko, besteak beste



irudia sinplifikatuz eta kolore bakarra erabiliz. 2019. urtean, gainera, logotipoak urtemuga ospatzen ari garela gogoratu digun '10' zenbakia izango du aplikazio guztietan.



Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | [cristinaenea@donostia.eus](mailto:cristinaenea@donostia.eus) | [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumeneko eta Ozeo  
Hidrologiako Departamentua



Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

